



CONTRALALEY EXTRANJER REGULARIZACI

iruzurrik EZ ←

[Bizkaiko SOS Arrazakeriak](#) Atzerritartasun legeak sortzen duen irtenbide eza eta atzerritarrek bere egoera erregularizatzeko bidean jasandako ustezko iruzurra azaldu du prentsa aurrean. Bilboko 8 epaitegik zenbait enpresari eta pertsonak ikertzen ari dira, ustez lan eta egoitza baimenak lortzearen promesaren truke 2000 € baino gehiago eskatzen zutelakoan.

Kasu guztietan baliaitutako metodoa antzekoa zen: 1.000 € eta 2.000€ baino gehiagoko ordainketapean, erresidentzia eta lan baimena lortuko zutela agintzen zieten etorkinei, lan eskaintza erreztea barne. Baina erresidentzia eta lan baimena eskaera ezezeztua izaten zen, lan baimena gezurrezkoa zelako, existitzen ez ziren enpresenak, jarduera ekonomiko eskasekoak edo euren datu eta sinadurak faltsutuak zirelako. Askotan interesdunak kudeatzaile, abokatu edo enpresariarengana jotzen zuenean azalpen bila, administrazioaren akats bat izan zela ziurtatzen zioten, eta informazio osagarria ematen zioten enpresaren inguruan kontratatzekeo ahalmena zuela frogatuz, edo zuzenean helegitea prestatzen zioten. Beste batzutan euren irregulartasun egoera probetxatuz ikaratzen zituzten, salatu ezkeroko ondorioetaz ohartuz.

